



## MFS Trapagako langileek greba mugagabea abiatu dute

---

LA HAINE - EUSKAL HERRIA :: 10/04/2025

Fabrika itxi nahi du zuzendaritzak eta 106 behargin kaleratze arriskuan daude.

Automozio sektorean diharduen MFS Trapaga Sinteringeko enpresa batzordeak greba mugagabea abiatu zuen apirilaren 9an, langile guztientzako enplegu erregulazio espediente (EEE) bat aurkezteko asmoaren aurrean. Automobilgintzarako piezak egiten dituen lantegi honek 106 langile ditu eta kaleratzeko arriskuan daude, izan ere, datozen asteetan, enpresak langile guztien kontratuak etengo ditu.

Langileek adierazi zuten ez daude "borrokatu gabe" amore emateko prest. Lantegia ixteak zuzeneko 106 lanposturen galera eragiteaz gain, kolpe berri bat ekarriko luke Meatzaldeko eta Ezkerraldeko industriarentzat, "desindustrializazio politika basatiek zigortutako eskualdeak", salatu zuten.

Atzo, Trapagaraneko MFS enpresako greba mugagabearen lehen egunean, %100eko jarraipena izan zuen eta plantilla osatzen duten 106 pertsonak egin zuten bat deialdiarekin. Plantillak antzeko egoera bizi izan zuen 2023an, enpresak EEE bat aurkeztu zuenean, eta, azkenean, enpresak erretiratu egin zuen, hainbat greba egun egin ondoren

---

<https://eh.lahaine.org/mfs-trapagako-langileek-greba-mugagabea>